

## Bilbon, 1997ko azaroaren 28an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua  
E. Knörr, buruordea,  
P. Goenaga, idazkaria,  
J. A. Arana, diruzaina,  
P. Altuna,  
M. Azkarate,  
P. Charritton,  
X. Diharce,  
X. Kintana,  
F. Krutwig,  
E. Larre,  
J. M. Lekuona,  
B. Oihartzabal,  
Tx. Peillen,  
P. Salaburu,  
J. San Martin,  
I. Sarasola,  
A. Urrutia  
eta L. Villasante  
euskaltzainak,  
eta  
J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea  
eta  
P. Garzia, biblioteca zuzendaria (2.  
gaian)

Euskaltzaindiaren onarpena adizkien formari zegokion. Terminologiaz ez zuen Euskaltzaindiak ezer erabaki eta oraingoan ere gauzak horretan uztea eskatzen da. P. Goenagak arrazoi ematen dio baina ageri den terminologia hau lagungarri izan daitekeela dio. Dena den, terminologia hori behin-behinekeoa dela adieraziko da oharretan. Horrenbestez, argi emango da aditzera Euskaltzaindiaren erabakia ez dela terminologiara hedatzen, adizkien formaz dela, soil-soilik.

Bestalde, aditz laguntzaileen erroak direla eta, laguntzaile gisa bakarrik ager daitezkeen aditzei izarñoa ezarriko zaie. Beraz, \*EDUN, \*EZAN eta \*EDIN bezala aipatuko dira erro horiek.

Beste ohar bat ere egiten du X. Kintanak, hain zuzen, lehenbiziko argitalpenean jasotzen ziren aginterazko adizki trinko zenbait (*biz, bira, bu* eta antzekoak) jasotzekoa. P. Goenagak erantzun dio forma horiek 1973ko argitalpenean jasoak ageri diren bezalaxe emango direla oraingoan ere.

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 1997ko azaroaren 28an, goizeko hamarrak eta hamarrean eman zaio hasiera Euskaltzain osoen hileroko batzarrari. Bildu direnen izenak ezkerreko zutabearen jasotzen dira. Ezin etorria adierazi du J. L. Davant jaunak.

### *Aurreko agiria onartzea*

Inork oharrik ez dio egin aurreko hileko agiriri eta, horrenbestez, bere horretan onartu da.

### *1. Hizkuntza arauak*

#### *1.1.1. Gramatika: aditz laguntzailearen berrargitalpen berria*

Aditz laguntzailearen berrargitalpen berria dela eta, 1973ko argitalpenari erantsi zaizkion oharrek onartzea proposatzen zaio Euskaltzaindiari. Ohar hauei buruz zenbait zuzenketa proposatu ditu Xabier Kintanak. Alde batetik, argitalpen honetan ageri den terminologia jarri du zalan-

tzan. Euskaltzaindiaren onarpena adizkien formari zegokion. Terminologiaz ez zuen Euskaltzaindiak ezer erabaki eta oraingoan ere gauzak horretan uztea eskatzen da. P. Goenagak arrazoi ematen dio baina ageri den terminologia hau lagungarri izan daitekeela dio. Dena den, terminologia hori behin-behinekeoa dela adieraziko da oharretan. Horrenbestez, argi emango da aditzera Euskaltzaindiaren erabakia ez dela terminologiara hedatzen, adizkien formaz dela, soil-soilik.

Onartu diren aldaketekin ontzat eman da txostena eta horrela berrargitaratuko da *Aditz Laguntzaile Batua, Arauak* direlakoen barruan.

### 1.2.1. Mitologia izenak.

*Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak* izenburua duen txostena aurkeztu du Xabier Kintanak. Zerrenda hau datorren hileko bileran eztabaidatu eta onartuko da. Oharrek abenduaren 15erako egon behar dute Euskaltzaindian.

#### 1.3.1. Hiztegi Batuko *ihabali-irudi* zerrendaren eztabaida amaitzea.

Aurreko bilera batean zerrenda honetako *inguru* sarreran "irian" ere sartzea onartu zen. Haritschelhar jaunak eskatu du *irian* ezezik, *iri* hitza ere sartu beharra dagoela. Lhandek, adibidez, 'eguerdi iria da' bezalakoak jasotzen ditu. Ontzat eman da.

Ondoren, zerrendan eztabaidarako bereziki markatuak ziren hitzen azterketari ekin dio batzarrak.

*Ihardun/jardun* eta eratorriak zer itxuran eman eztabaidatu da lehendabizi. J. San Martinek Foruko bileran zer erabaki zen gogoratu behar dela esan du eta ezin dela atzera eta aurrera ibili Euskaltzaindia, orain gauza bat eta hurrengoan kontrakoa. Xarrittonek dio *J* grafiaren ahoskera dagoela eztabaidan eta badela garaia Euskaltzaindiak horretaz zerbait esan dezan. Bidea egiten hasteko aukera izan litekeela *ihardun* idazkera onartzea. Sarasolak erantzun dio esanaz *J*-ren auzia benetan larria dela baina arazo hori ez dela konpontzen Xarrittonen bidetik. Beñat Oihartzabalek gogoratu du, azkenik, hitz hori hegoaldeko tradiziokoa dela eta tradizioa errespetatu egin behar dela.

Azkenik, bozkatu da eta hau izan da lortutako emaitza: *jardun*-en alde, 10 boto; *ihardun*-en alde, berriz, 4. Horrenbestez, *jardun*, *jarduera*, *jardunaldi*, etab. onartu dira, hain zuzen euskara batuko batzordearen iritziaren araberako formak. Honek ez du kentzen Euskaltzaindiak *J* grafiaren kontuaz epe laburrean erabakiren bat hartzea, hitz hasierakoa belare gisa ahoskatu beharrean, sabaikari gisa ahoskatzea gomendatuz, adibidez. Ildo honetatik ahoskera batzordetik zerbait etorriko dela uste da.

*Ihaurkin / inaurkin* hautuaz, lekukotasunak *N*-dunaren alde omen daude. Horregatik, *inaurkin*-i emango zaio lehentasuna.

Baina, lehengo bileran, azken momentuko presak zirela eta, besterik erabaki baldin bazen ere, aditzak *ihaurri* izan behar omen luke eta ez, *inaurri*. Horrela onartu da. Beraz, *inaurkin*, baina *ihaurri*.

Hurrengo eztabaida *ihaute / inaute* bikoteaz izan da. Eztabaida luzearen ondoren *N*-dun forma hobetsi da: *inaute* eta *inauteri*. Gainera, *inaute* sarreran adibide bat jarriko da: 'hori astelehen inautez egingo da', adibidez. Eta, jakina, *ihaute*\* e. *inaute*; *ihauteri*\* e. *inauteri*.

Eta bere garaian *aratuzte*, *aratoste* eta abarrak sartu ez zirenez, idazkariari eskatu zaio gogoan izan ditzala, horrelako hitzak zerrenda berrikusterakoan sartu ahal izateko. Aktan behintzat jasoa gelditzen da.

*Inmunizatu / immunizatu* hautuaz ere luze joan da eztabaida. Azkenean hiru idazkera mahaigaineratu dira: *mm*, *nm* eta *m* soila. Botoetara jo da eta hau izan da emaitza: *-mm*-ren alde, 7 boto; *-m-* soilaren alde, 8 eta *-nm*-ren alde, boto bakarra. Emaitza hau ikusirik, Miren Azkarate andreak esan du ikusi egin beharko litzatekeela zer esan zen

bere garaian kontsonante multzoez. Eztabaida luzatu da eta berriro bozkatzea eskatu da, baina oraingoan bi aukera hauen artean: *-mm-* eta *-m-*. Oraingoan hau izan da emaitza: *-mm-*ren alde, 13 boto eta *-m-* soilaren alde, berriz, 5. Beraz, *immunizatu* forma onartu da.

Ildo honetatik, A. Urrutiak hala eskaturik, *immunitate* hitzari ere zerrendan leku egitea onartu da.

*Ingeniari* / *injineru* eta *ingeniaritza* / *injinerutza* bikoteen arteko aukera jarri da hurrena mahai gainean. *Ingeniari* forma azken boladan aski hedatu dela esan da, unibertsitate giroan bereziki. Bestalde, forma honi kontrajartzen zaizkionek, *injineru*-ren eitekoek alegia, anabasa handi xamarra erakusten dutenez, *ingeniari* forma hobetsi dute euskaltzainek. Eta, arrazoi beragatik, *ingeniaritza*.

*Inperkadore* hitza zerrendatik ezabatzea proposatu du batzordeak eta hala onartu da.

*Inprenta* eta *inprimeria* hitzei buruzko eztabaida izan da hurrengo. Azkenean, 'inprimatzeko teknika' adierarako aditz-izena hobetsi da: *inprimatze*. Horrenbestez, bi hitz horien sarreretan "h. inprimatze" oharra ezarriko da. Eta bigarren adierarako, hots: lanak inprimatzen diren lantegia adierazteko, "e. inprimategi" ezarriko da, adibide bat ezarri, gauzak hobeki ulertzeko.

*Ipurmasail* hitzean ikusten den eztabaida 'masail' osagairi dagokiola esan dute batzordekideek. Horrenbestez, *masail* sarrerara iristen garenean eztabaidatzeko utzi da. Honetaz ere norbaitek gogoratu behar omen du. Aktan jasoa gelditzen da, horrenbestez.

Azkenik, *iragazi* / *irazi* eta hauen eratorriez, batzordeak forma laburrak hobesten ditu. Hala ere euskaltzainen artean eztabaida izan da. Botoetara eraman da eta batzordearen proposamenak zortzi boto lortu ditu. Kontrakoak, berriz, hamar izan dira. Ondoren, beste proposamen bat egin da: biak, luzea eta laburra, libre utzi, biak berdintzat emanaz. Bozketa honetan 13 boto izan dira alde, bat kontra eta beste bat zuri. Beraz, *irazi* nahiz *iragazi* etab., denak ontzat emango dira.

## 2. Biblioteka zuzendariaren txostena.

Ondoren euskaltzainburoak Pruden Garzia biblioteka zuzendariari eman dio hitza "Azkue Bibliotekaren Katalogoa (ABK), Euskaltzaindiaren proiektu estrategikoetariko bat" txostena irakurtzeko.

Katalogatze lan honek berezkoa duen balioaz gainera, badu erreferentziatzko izatearen balioa ere, euskaraz egiten baita lana. Honek bestelako liburutegietan ez diren arazoei aurre egitea eskatzen du.

## 3. Eskuartekoak.

### 3.1. Euskaltzaindiaren Alde fundazioaren aurreproiektua.

A. Urrutiak aurkeztu du proiektu hau. Euskaltzainei eskatu zaie arretaz irakurri eta, behar izanez gero, oharrak egin ditzatela, idatziz, datorren hilaren 15a baino lehen. Behin onartuz gero, prozedura abian jarriko litzateke. Fundatzaile izango direnek ere tesuari aldaketak ezarri ahalko dizkiote. Oraingoa, hortaz, hasierako urratsa izango litzateke.

3.2. L. Villasante "Lan Onari" tituluaz saritu nahi izan du Eusko Jaurlaritzak. Saritze hau dela eta, Euskaltzaindiak bere atxikimendua erakustea ongi ikusi du.

Bestalde, sari ematea Leioan hilaren 15ean izango da. Ekitaldira joateko asmoa duten galdetu zaie euskaltzainei, gonbidatu kopuru mugatua baita. Joango direnen ize-  
nekin Lizundia jaunak egingo du zerrenda

#### *4. Azken ordukoak.*

Bilera amaitu aurretik, Xarrittonek bere poza agertu du hemendik aurrera ETB Iparaldeko txoko guztietara iristeko bidea ziurtatua delako. Jagon Sailak eta Euskaltzaindi osoak nolabait txalotu behar lukeela gertakizun hori, dagokienei zorionak emanaz. Hala ere, erabateko zoriona izango litzatekeela ETB zazpi probintziek elkarrekin egingo balute.

Eta besterik gabe, ordu biak hamar gutxitan amaitu da goizeko bilkura.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga